



2021-22KO ENPLEGU-PLANAK 38 LANPOSTU SORTUKO DITU AIARAKO KUADRILLAN ETA URDUÑAN

2021ean eskualdeko enplegu-planak gauzatuko dira berriz ere. Aiarako Kuadrillan eta Urduñako udalerrian 38 pertsona kontratatuko dira sei hilabetez, 35 lanaldi osoan eta 3 lanaldiaren % 60an. LANBIDEk ekainaren 16ko ebazpenaren arabera eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten langabeentzat dira plan horiek. Udalerrri bakoitzean hainbat profil kontratatuko dira, eta iragarkiak LANBIDEn argitaratuko dira azaroaren 15etik aurrera. Interesdunek azaroaren 30era arte eman ahal izango dute izena, LANBIDEn bitartez; horretarako, LANBIDEn web zerbitzua erabiltzea gomendatzen dugu. Kontratazioak abenduaren 31 baino lehen egingo dira.

Aurten berriro deituko dira enpresak kontratazeko laguntzak, eta aurreikusitako zenbatekoa 151.500,00 €-koa da.

Planak 665.000,00 eurotan baino gehiagotan zenbatesten dira, eta LANBIDEk (Euskal Enplegu Zerbitzuak) % 69an finantzatuko ditu gutxi gorabehera.

AIARAKO KUADRILLAREN PRESIDENTEA

ENCINA CASTRESANA ASTARLOA